# BETERRISARETUZ

BETERRI BURUNTZA ESKUALDEAN PARTAIDETZAN OINARRITURIKO ENPRESAK

**GAKOAK**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta
Landa Inguruneko Departamentua

BETERRISARETUZ



# AURKIBIDEA


1. · Sarrera/kokapena.........1

2. · Partaidetza sustatzeko arloak...........................3

3. · Partaidetza sustatzeko gakoak.......................13

4. · Gako bakoitza neurtzeko Ekintza zehatzak.........15

# SARRERA/KOKAPENA

**Gida honetan ageri den informazioak, 2019-2020 ikasturtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesari esker, Beterri Buruntza eskualdean abian jarritako proiektu batean du oinarria, hain zuzen ere, Beterri Saretuz deituriko egitasmoan.**

**Proiektu honen helburu nagusia, partaidetzan oinarrituriko enpresak sortu eta indartuko dituen Ekosistema bat sortzea da. Horretarako, eskualdeko enpresa parte-hartzaileak, Lanbide Heziketako zentroak, garapen agentziako teknikariak eta ekintzaileak bilduko dituen egitura funtzional bat sortzeko prozesua abiarazi dugu 2019-2020 urteotan zehar.**



Mundu akademikoan zein erakunde publikoetan, adostasuna dago partaidetzako enpresak sortu eta sustatzeko orduan kontuan hartu beharreko **eremuak 4** direla: **partaidetza kapitalean, partaidetza emaitzetan, partaidetza kudeaketan eta partaidetza erabaki estrategikoetan.** Hau hala izan arren, partaidetzako enpresen sustapena, eskualdeko tokiko garapenerako prozesuaren baitan kokatu nahi dugu guk. Horrela, partaidetza mozkinetan aztertu ordez, partaidetza lurraldean aztertu eta sustatu nahi dugu. Izan ere, lurralde, enpresa eta jendarte erantzunkideak sortzeko, gako nagusienetako bat lurralde mailako inplikazioa dela uste dugu.

Guztion inplikazio eta lanari esker, partaidetzan oinarrituriko enpresa batek barrura begira zein kanpora begira landu beharreko **6 gako** nagusienak zeintzuk diren ondorioztatzera heldu gara: **formakuntza, ahalduntzea, ESEren sutapena, Ekonomia fiskal finantzieroa, pertsona erdigunean jartzea eta ospatzea edo aitortza.**

Horrela bada, enpresa mailan partaidetza sustatzeko aipatu ditugun 4 eremuotan sakondu ahal izateko, 6 gako horietan elkarlana egitea proposatzen dugu. Alegia, 6 gako hauek izatea partaidetzako enpresak sustatzeko ekosistema honen elkarlanerako gaitegia eta oinarria, non eskualdeko eragile ezberdinek beraien ekarpenak egin eta beharrak asetzeko aukera izango duten, etengabe eraldatzen joango den prozesu bizi gisa ulertuz.

Bukatzeko, izaera juridiko guztietan landu daiteken arlo bat dela iruditzen zaigu. Izan ere, ekonomia sozialeko egiturak partaidetza maila handi bat garatzea ahalbideratzen badu ere, beste edozein izaera juridikoa duten enpresetan ere landu daiteke partaidetzaren gaia.



**Ekonomian eta enpresetan langileon parte hartzea sustatzea esaten dugunean, demokrazian sakontzeaz ari gara.**

Demokrazia ekonomikoa, langileek enpresaren norabidearen inguruan duten erabakimen mailaz gain, beste eremu zabalago batzuetan ere jorratu daiteke, hala nola, jabetza, kudeaketa gaitasuna, erabaki estrategikoen gaineko erabakimena, emaitzen banaketa eta enpresak lurraldean zein komunitatean duen inplikazio eta konpromezu maila.

**Parte hartzeaz aritzerakoan bi eredu nagusi bereizi ditzakegu:**

**1.- Paradigma integratzailea:** langileen parte-hartzea, giza baliabideak kudeatzera bideratzen denean, langilea enpresaren interesetan integratuz.

**2.- Paradigma kritikoa:** kapitalaren eta lanaren arteko harreman asimetrikoak irauli eta langileen erabakimena, enpresaren arlo guztietara zabaltzera bideratzen da.

Beterri Saretuz proiektuaren bidez sortu nahi dugun ekosisteman, bigarren eredu hau sustatu nahi dugu. Izan ere, gure helburua, demokrazia eremu ekonomikora zabaltzea baita.

# PARTAIDETZA SUSTATZEKO ARLOAK



**Jarraian, partaidetzan oinarrituriko enpresa batek landu ditzazken eremuen definizioa eta eremu horrek eskeintzen dituen aukerak eta erronkak azalduko ditugu:**

# Parte Hartzea Erabaki Estrategikoetan



## Definizioa

Erabaki estrategikoak, urtean behin egiten den asanblada orokorrean onartzen dira normalean. Bertan, enpresaren nondik norako orokorra zehaztu eta erabaki ohi da. Proposamen estrategiko hauek kontseilu errektoreak diseinatu eta planifikatzen ditu, eta jarraian asanblada orokorrean sufragio unibertsalaren bidez onartu ohi dira.

Prozesu honetan parte hartzea sustatzean, estrategiaren onarpen demokratikoaz gain, estrategiaren eraikuntza modu kolektibo eta partekatuan egin genezake, erakundeko pertsona eta lanpostu guztiak barnebilduz.

Prozesu hau modu kolektiboan egiteak aukera eta zailtasun ugari ekarriko ditu:

## Aukerak

Prozesuan erakundea osatzen duten pertsona guztiak integratzeak emaitza aberasgarriagoak ekarri diezaizkiguke, enpresan dagoen talentu eta jakintza guztiak barnebilduko baitira estrategiaren eraikuntzan. Bestetik, estrategia horiek, enpresaren errealitatera egokitzeko aukera gehiago izango dute, enpresako lanpostu guztietan dauden pertsona guztien ikuspuntua barneratuko baitu. Azkenik, estrategia hori aurrera eramateko erraztasun handiagoak eduki ditzazkegu, batetik, pertsona guztiek parte hartzen duten heinean, mundu guztiak propiotzat sentitu baitezake, eta bestetik, lanpostu guztien ikuspuntua barnebiltzen duenez, lanpostu guztiak estrategia horrekin lerrokatuak egongo baitira.

## Erronkak

Erakundea osatzen duten pertsona guztiek estrategiaren diseinuan parte hartzeak ere zailtasun ugari ekarri ditzazke. Batetik enpresaren estrategia orokorraren diseinua prozesu konplexua denez, diseinuan parte hartuko duten pertsonen gaitze prozesu bat exijituko du nahitaezean. Bestetik, prozesu kolektibo luze eta konplexu bat den heinean, erakundearen barne funzionamendu egoki eta eraginkor bat exijitzen du, gauza asko pentsatu eta adostu behar baitira pertsona asko eta anitzen artean. Azkenik, estrategiaren eraikuntza prozesuan hainbeste pertsona eta lanpostu barneratzeak zailtasunak ekarri ditzazke estrategia koherente eta egingarri bat diseinatzeko orduan, iritziak eta helburuak askotan kontrajarriak izango baitira eta askotan oso zaila izango baita hauen arteko adostasun eta sintesi puntuak aurkitzea.

# Parte Hartzea Kudeaketan



## Definizioa

Kudeaketak, enpresaren egunerokoa aurrera eramateko egin behar diren planifikazio, ekintza eta hartu behar diren erabaki guztiak biltzen ditu. Kudeaketak egunerokoan gertatzen diren gorabeherak ebatzi behar ditu, bain beti ere, eguneroko horrek enpresaren norabide estrategikoarekin lerrokaturik egon behar du, urteko helburu estrategikoak eguneroko kudeaketaren bidez lortzen edo galtzen baitira.

Eguneroko kudeaketa eredu parte hartzailean oinarritzeak, langileek beraien lan-saila edo lan prozesuaren kudeaketa egitea dakar. Horrela autokudeaketa bihurtzen da lan prozesu bakoitza eta lan-tokia gidatzeko eredua.

Honek aldaketa ugari eragiten ditu enpresaren egunerokoan, eta aukera eta zailtasunak ekartzen ditu:

## Aukerak

Kudekaeta eredu parte hartzaileak aukera ematen du lanpostu eta lan-sail bakoitzaren beharren araberako kudekaeta eredu espezifikoak egiteko. Bestetik, langileen ahalduntzea sustatzen du, hauek erabakiko baitute lan prozesuaren antolaketaren nondik norakoa.

## Erronkak

Enpresaren eguneroko kudeaketa modu parte hartzailean egiteak zailtasun eta erronka ugari ekarri ahal dizkigu. Lehenik eta behin enpresa guztiaren berrantolaketa egitera behartzen gaitu. Horretarako, enpresako informazio eta komunikazio fluxu guztiak berregin behar dira eta lanpostu eta lan sail bakoitzaren berrazterketa bat egin. Bestetik, langileriaren ahalduntzea eta formazioa exijitzen du, langile bakoitzaren gaitasunetan oinarritzen baita bai lanaren antolaketa zein kudeaketa. Honekin batera, langileen konpetentzia sozialak sustatu behar dira, erabaki guztiak lankideen artean hartu eta exekutatu beharko baitira, eta honek pentsamendu kritikorako, komunikaziorako eta adostasunetara iristeko gaitasunak exijituko ditu. Azkenik, balioen eraldaketa eskatzen du, hierarkian eta bertikaltasunean oinarritzen den antolakuntza ereduetatik, horizontaltasunean eta berdintasunean oinarritzen den antolaketa ereduetara pasatzeko, alegia, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen balioak hartzeko.

# Parte Hartzea Kapitalean



## Definizioa

Beterri Saretuz proiektuaren bidez sortu nahi dugun ekosisteman garrantzia berezia eman nahi diogu kapitalean ematen den parte hartzeari, beti ere beste eredu batzuk baztertu gabe. Enpresen kapitalaren jabetzan parte hartzea da enpresa eredua eta eredu ekonomikoa definitzen eta determinatzen duen gako zentrala. Era berean, eredu ekonomikoa da jendarte eredua definitzen eta determinatzen duen elementu nagusienetako bat. Jabetza pribatuan, hierarkian, autoritatean eta leihakortasunean oinarritzen den jendarte eredu bat, ala jabetza kolektiboan, horizontaltasunean, demokrazian eta elkarlanean oinarritzen den jendarte eredua izango den ebazten duen oinarri materiala da. Noski, eredu hibridoak ere eman daitezke eta hauek ere kontuan hartu beharko genituzke.

Partaidetza kapitalean sustatzeak aukera eta zailtasun ugari ekarriko ditu:

## Aukerak

Langileen partaidetza kapitalean sustatzeak, erabaki estrategikoetan, kudeaketan, emaitzetan eta jendarte zein lurraldean parte hartzea sustatzeko aukera eskaintzen du. Bestetik, enpresetako kapitalean parte hartzea sustatzeak, eredu ekonomikoan eragiten du zuzenean, jabetza kolektiboan oinarritzen den eredu batek sistema ekonomikoaren helburuak eta egiteko moduak eraldatu baititzazke. Irabazi asmoa, hazkundea eta lehiakortasuna ardatz bezala edukitzetik asebetetzea, nahikotasuna, parekidetasuna eta iraunkortasuna oinarritzat hartzeko aukera eskaintzen du. Azkenik, eredu ekonomikoa eraldatzeak jendartea eraldatzeko aukera eskaintzen digu, pertsona erdigunean kokatuko duen eredu bat eraikitzeko aukera eskaini, eta, egun bizi ditugun arrisku eta mehatxu globalei aurre egiteko parada ematen digularik.

## Erronkak

Ekonomia eredua eta jendarte eredu berri bat eraikitzeko oinarri materialak eskaintzen dizkigun bezala, erronka ugariren aurrean kokatzen gaitu. Batetik, langilea enpresaren azken arduraduna bihurtzen da eta eredu ekonomikoaren subjektu nagusia. Honek langilearen formazio jarraian oinarritzen den ahalduntze prozesua eskatzen du. Bestetik, enpresaren eraldaketa integrala beharrezkoa da, batez ere balioei dagokionez, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen balioak propio egitera eta orokortzera behartzen gaituelarik.

# Parte Hartzea Lurraldean



## Definizioa

Lurraldean parte hartzeaz ari garenean ez gaude langileen parte hartzeaz hitz egiten ari, baizik eta enpresen parte hartzeari buruz. Enpresa gertakari sozial eta territorial bat den heinean, nahi ala ez, jendareangan eta lurraldearengan eraginak dauzka. Horrela bada, enpresaren eragin horren jabe izatea eta modu konsziente, antolatu, kolektibo eta estrategiko batean egitea planteatu nahi dugu hemen. Hau da, enpresa bere lurraldearen eta jendartearen eraldaketa eta garapen estrategiaren agente aktibo izatea, honen diseinutik exekuziora. Enpresen partaidetza lurraldean sustatzea ordea, enpresa mundutik egiten den zerbait izateaz gain, administrazio publikoen zeregina ere bada enpresen, hezkuntza eragileen eta eragile sozialen parte hartzea posible izan eta eraginkorra izateko espazioak, momentuak eta baliabideak sortu eta eskaintzea, eta ahal dela, parte hartze hau egonkortu eta sistematizatzeko egiturak edo ekosistemak ahalbidetzea.

Eremu honetako aukera eta erronkei dagokionez:

## Aukerak

Enpresen *partaidetza lurraldean* sustatzeak aukera ugari eskaintzen ditu bai enpresentzat, bai jendartearentzat eta bai lurraldearentzat. Batetik, enpresen lau paretetatik haratago doazen harremanak eraikitzea halbidetzen du, ingurunearen eta jendartearen behar eta gaitasunetaz ohartzeko aukera emanez eta beraien jarduna, behar eta gaitasun horietara moldatzeko aukera eskainiz. Bestetik, enpresek dituzten beharrak asebetetzeko aukera ematen du, hala nola formazio beharrak, informazio trukaketak, elkar babesa etab... Aukera ematen du ere elkarlaneko eta eskala handiagoko proiektuak egiteko interkooperazio harremanak egituratuz. Azkenik, berrikuntza prozesu interaktibo eta iraunkorrak errazten ditu, erakunde batean ematen diren berrikuntza prozesuak ondoko erakundeetara zabaldu daitezen. Lurraldeari dagokionez ere, parte hartzeko espazio iraunkorrak sortzeak, aukera handiak eskaintzen ditu. Esaterako, lurraldean ematen diren prozesu eta fluxuen inguruko ezagutza handitzen du eta honek hauen inguruko planifikazioa egiteko aukera eskaintzen du. Horretaz gain lurraldeko baliabideen aprobetxamendu eta kudeaketa iraunkorra ahalbidetzen du enpresen eta gainontzeko eragileen arteko harremanen ondorioz. Azkenik, lurraldeko eraldaketa eta garapen planak ezinbestekoa du lurraldeko eragile nagusien parte hartze protagonikoa sustatu eta ahalbidetzea. Jendartearentzako ere ugariak dira eskaintzen dituen aukerak: nagusienetako bat da lurraldeko eragile nagusien jardunaren inguruko ezagutza edukitzea ahalbidetzen duela, eta honek nolabaiteko identitate kolektibo bat eraikitzeko aukera eskaintzen duela.

## Erronkak

Lurralde mailako partaidetzarako egitura edo ekosistema bat sortzeak ere erronka ugari azalarazten ditu. Batetik, eragile ugari eta anitzen parte hartzea exijitzen du, behar, interes eta gaitasun ugari eta anitzak dituzten eragileena. Honek fazilitazio lan handia exijitzen du, eragile bakoitzaren behar eta gaitasunak identifikatu eta eragile hauen interesa asebeteko duten espazioak eta gaitegiak sortzeko exijentzia egiten dio fazilitadorearen ardura duen eragileari, normalean administrazio publikoarena delarik. Bestetik, parte hartuko duten eragileei ere eskatzen die esfortzua, batez ere, beraien egunerokotik eta beraien helburuetatik harago doan espazio batean parte hartu, eta, helburu eta ekintza plan kolektiboetan lan egitea eskatuz. Bukatzeko, erakunde ezberdinetan ematen diren lan egiteko moduak eta logikak gainditu eta egokitzapen bat eskatzen du, zenbait kasutan prozesua zaila eta luzea izaten delarik.

**Lehenik eta behin partaidetzazko enpresak sustatzeko landu behar diren lau eremu nagusiak identifikatu eta definitu ditugu. Kapitala, kudeaketa, erabaki estategikoak eta lurraldea.**

Beterri Saretuz-en jardunaldietan, partaidetzan oinarritzen diren enpresa eredu ezberdinen testigantzak jaso genituen beraien parte hartze eredu eta praktiken inguruan. Entzuten geunden gainontzeko enpresa eta eragileek, testigantza hauetan esandako gako nagusiak identifikatu genituen, aipaturiko lau eremuotan parte hartzea sustatzeko elementu eta gako nagusienak zeintzuk ziren zerrendatuz. Hurrengo saioetan, gako hauen inguruko lanketa xeheagoa egin genuen.

# PARTAIDETZA SUSTATZEKO GAKOAK

Ondorengo orrietako tauletan aurkituko duzuena, eskualdeko eragile soziokonomikoek testigantza hauetan identifikatu genituen gako nagusiak dira. Esan bezala, prozesuaren baitan identifikatutako gako hauen gainean kontraste eta sakontze saioak egin genituen, gako hauen esanhaia eta aplikagarritasuna zehaztu genuelarik, ahalik eta erabilgarrien izan daitezen partaidetzan oinarritzen diren enpresak sustatzeko garaian.

Horrela bada, ekoistemaren zeregin nagusia, partaidetzazko enpresak sustatzeko landu beharreko lau eremuotan identifikatu ditugun, eta, jarraian azalduko ditugun gako hauek aplikatzeko prozesuak, topaguneak eta baliabideak sortu eta konpartitzea izango da, partaidetzazko enpresak sortzeko agenda konpartitu eta espazio amankomun bat sortuz.

- Formazioa
- Ekonomia Eraldatzailea eta Elkartasun Balioen Sustapena
- Ahalduntzea
- Alderdi ekonomiko-fiskal-finantzarioa
- Pertsona erdigunean jartzea
- Aitortza / Ospatzea



## GAKO BAKOITZA NEURTZEKO

# EKINTZA ZEHATZAK

**Aipaturiko gakoen lanketa egiteko, egun dauzkagun baliabideak edo sortu beharko direnak aipatzen dira, beti ere, gako bakoitzerako zehaztuak.**

**Horrela bada, bi lanketa modu bereizi ditugu:**

**1.- Bakarka egitekoak direnak.**

**2.- Kolektiboki egiteko direnak.**



Gako hauen lanketa modu indibidualean zein kolektiboan egiteko prozesu eta baliabideak aurkeztuko ditugun arren, garrantzitsua deritzogu bai modu batean zein bestean lan egiteko orduan, ekosistemak duen potentzialtasuna ikustaraztea, eta egun dauzkagun aukerak eta baliabideak ekosistema osatzen dugun eragileok sortu eta partekatu ditugula kontutan hartzea.

Ekosistemaren baitan sortu diren baliabide eta jorratuko ditugun topagune eta prozesuez gain, oso garrantzistua deritzogu ekosistemaren baitan ehunduko diren harremanei zentraltasuna ematea. Arestian aipatu bezala, eragile sozioekonomikoak gertakizun sozialak dira, eta oso baldintzatuak daude beraien ingurarengatik, eta inguru horrekin duten interakzioen intentsitatearengatik. Gure ustetan, azpimarratzekoa da eragile anitzen arteko harremanek sortzen dituzten ondorioak. Esaterako, ezaguna da lurraldeak berrikuntza prozesuetan duen eragina, berrikuntza prozesu interaktiboak eragiteko garaian, hau da, eragile batetan ematen diren berrikuntza prozesuek inguruan dauden eragileengana zabaltzeko duten "joera naturala". Modu "naturalean" ematen den prozesu hau, askoz ere eraginkorragoa da horretarako berariazko espazioak eta prozesuak existitzen badira, beste leku batzuetan Agora territorialak deritzenak sustatzen badira, alegia.

Bestetik, sortzen ari garen ekosisteman dagoen aniztasunak ere badauka beste abantaila bat: eragileek beraien funtzionamendurako behar dituzten balio katearen hurrenez-hurreneko katebegiek osatzea sortzen ari garen ekosistema. Argiago esateko, hezkuntza eragileen eta enpresen artean, batak bestearekiko duen beharra asebetetzen da. Batetik zuzeneko harremana sortuko baita, bata eta bestea osatzen dutuen pertsonen artean, eta bestetik, eragile bakoitzaren jarduna beste eragileen beharren eta aukeren arabera moldatzeko aukera eskaintzen duelako lurraldeko, eta ondorioz, lurraldea osatzen duten eragile guztien ahalduntzea eta eraginkortasuna handituz. Gainera, administrazio pubikoak ere ekosistema honetan parte hartzeak, garapenerako politika publikoek ko-kudeaketa prozesuak eragin ditzake, ekosisteman parte hartzen dute eragileekin eta eragileentzako beharrezkoak diren prozesuak eta baliabideak eskuragarri jarriz.

Lehen gakoa:

# FORMAZIOA

## Zertaz ari gara?

· Batetik partaidetzaren inguruko jakintzak gureganatzeko formazioetaz ari gara (partaidetza zer den, nola aplikatzen den, zertarako balio duen, zein praktika on eta txar dauden…)

· Betsetik, indibidualki zein era kolektibo batean, parte hartzeko beharrezkoak diren gaitasunak bereganatzeko formazioetaz ari gara.

## Zergatik landu beharko genuke gako hau?

· Alde batetik, parte hartzeaz ari garenean zehazki zertaz ari garen argi izateko. Behin oinarri teorikoa barneratu ondoren, praktikan jartzen ikasteko.

· Bestetik, enpresen aktibo garrantzitsuena pertsonak direlako eta enpresako arlo ezberdinetan beraien parte hartze erreala eta eraginkorra bermatzeko formazioa behar delako (beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak barneratu ahal izateko).



## • Enpresa bakoitzak era indibidualean landu ditzakeen neurriak

| NEURRIA | AZALPENA | BALIABIDEAK |
|---|---|---|
| Auto diagnostikoa | Auto diagnostiko tresnak eta metodologiak ezagutu eta enpresa barruan martxan jartzea. | · ERAKIDE |
| Abiapuntua eta espektatibak argitu | Partaidetza prozesu bat martxan jarri baino lehen, enpresaren abiapuntua eta espektatibak zeintzuk diren definitzea (hausnarketa kolektiboa). | · ERAKIDE |
| Beharrak eta zailtasunak definitu | Partaidetza prozesu baten aurrean erakundeak izan ditzakeen beharren eta oztopoen identifikazioa. | · ERAKIDE |
| Aukerak eta mehatxuak identifikatu | Erakunde mailan partaidetzan oinarritutako erakunde batek ekar ditzakeen onurak eta arduren inguruko informazioa eta hausnarketa kolektiboa egitea. | · ERAKIDE |
| Ekintza plana osatu | Epe laburreko eta epe luzeko helburuak finkatu eta hauek gauzatzeko ekintza plan bat martxan jartzea. | · ERAKIDE |
| Barne formazioak | Partaidetza sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza eta gaitasunen inguruko formazioak antolatzea eta bertan enpresako kide guztiek parte hartzea.<br>Eskualdean partaidetza eremu bakoitzean eredugarria den enpresa batek gidatutako bidelaguntza prozesuak sustatu eta bideratzea. | · KoopFabrika<br>· Iturola-Martin Ugalde formazio eskaintza<br>· ESE Saretzen |

## · Kolektiboki landuko diren ekintzak

| NEURRIA | AZALPENA | SUSTATZAILEAK | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|
| Eskualde mailako topaketak egitea | Partaidetzaren inguruan foro/jardunaldiak/topaketak: batzutan modu orokorrean eta irekian landuko dira hautatutako gaiak. Besteetan berriz, modu zehatz eta esozidikoagoan landuko dira, gaien batean edo bestean espeizalista den pertsona edo eragileren batekin laketa sakonagoa eta iraunorragoa egiteko. | · Ekintzaileak<br>· Administrazioa<br>· Hezkuntza eragileak<br>· Enpresak | · Beterri Saretuz<br>· Koopfabrika<br>· Berariaz sortuko direnak |
| Ezagutza teorikoak eta praktikoak partekatzea (foroak, bideoak, jardunaldiak…) | Eskualdeko eragileek daukaten jakintza teorikoa eta praktiko berritzaileak ezagutaraztea (oinarri teorikoa eskainiko duten adituak zein eredugarriak izan daitezkeen esperientzien testigantzak). | · Ekintzaileak<br>· Administrazioa<br>· Hezkuntza eragileak<br>· Enpresak | · Beterri Saretuz<br>· Koopfabrika<br>· Berariaz sortuko direnak |
| Kontzientzia kolektiboa sustatzea | Kontzientzia indibiduala atzean utzi eta kolektiboa sustatzeko kanpainak abian jartzean. | · Ekintzaileak<br>· Administrazioa<br>· Hezkuntza eragileak<br>· Enpresak | · ESE Saretzen<br>· Eraldaketa Nodoa |
| Lurraldean errotzea | Lurraldeko eragile anitzen arteko saretzea jakintzak, baliabideak eta berrikuntzak partekatzea. | · Ekintzaileak<br>· Administrazioa<br>· Hezkuntza eragileak<br>· Enpresak | · ESE Saretzen<br>· Eraldaketa Nodoa<br>· ERAKIDE |
| Inklusioa sustatzea | Bazterkeria egoera batean dauden pertsonei formazioa eta gizareratze eta laneratze ibilbideak. | · Administrazioa<br>· Hezkuntza eragileak<br>· Enpresak | · Sutargi<br>· Zabalduz<br>· Katea legaia<br>· Enplegu-soziala |
| P.H. hezkuntzan bultzatu | Etorkizunean enpresetako kide izango diren ikasleei P.H. inguruko formazioa eta enpresa eredugarriak ezagutzeko aukera eskaintzea. | · Hezkuntza eragileak<br>· Enpresak | · Ese Saretzen<br>· Eraldaketa Nodoa<br>· Beterri Saretuz |
| Gaitasunen inguruko formazio eskaintza | Langileek enpresan parte hartzera iristeko beharrezkoak dituzten gaitasunen inguruko formazioak eskaini. Ikasle zein langileei zuzenduriko formazioak. | · Hezkuntza eragileak<br>· Administrazio publikoa<br>· Enpresak | · Ese Saretzen<br>· KoopFabrika<br>· Iturola-Martin Ugalde |
| Enpresetan bidelaguntza prozesuak | Enpresa eredugarriek beharra duten enpresetan bidelaguntza prozesu pertsonalizatuak egitea. | · Administrazio publikoa<br>· Enpresak | · Beterri Saretuz<br>· KoopFabrika |

Lehen gakoa:

# FORMAZIOA

## ESPERIENTZIAK / ADIBIDEAK:

**1. KoopFabrika:**
Ekonomia sozial eta eraldatzailea ardatz hartuta, proiektu kolektiboak martxan jartzeko egitasmoa. Formazio eta bidelaguntza zerbitzua.

-Azalpen bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=zZjF_UMDLDY&feature=emb_logo

-Webgunea:
http://koopfabrika.eus/

**2. Ikasleen kooperatibak:**
Edozein kurtso eta adineko ikalseek (lehen hezkuntzatik aurrera) sortu eta kudeatzen dituzten kooperatibak. Kooperatiba hauek jarduera ekonomikoa burutzen dute, eta gainontzeko kooperatiben funtzionamendu eta egitura berak dituzte. Kooperatiba mota honek funtzio bikoitza daukate, batetik jarduera ekonomikoaren burutzea eta bestetik, eta garrantzitsuago, baloreetan hezteko funtzio pedagogikoa.

-Laudio Ikastola:
https://www.laudioikastola.eus/eu/node/6399

-Escoles Cooperatives:
https://escolescooperatives.cat/cooperatives-alumnes/

**3. Erakide:**
Erantzukizun sozial enpresariala neurtzeko herraminta. GFA-k diruz lagunduta eta Farapi aholkularitzak sortutakoa. Beterri-Buruntza eskualdeko 10 enprresek inguru erabili dute iada, eta datozen urteotan modu jarraitu eta estrategikoan erabiliko dena eskualde hontan. Erantzunkidetasunaren inguruko diagnostiko zehatza egitea ahabidetzen du enpresaren eremu guztietan, eta hautatzen den eremuan hobekuntza planak diseinatzeko eta gauzatzeko ezinbestekoa den informazio zehaztu eta kuantitatiboa eskaintzen du.

-Azalpen bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=Q0_aU1Y-PEM

-Kontaktua:
Andoni Egia (a-egia@hernani.eus)

**4. Iturola-Martin Ugalde:**
Iturola elkarlan sorgunea Beterri-Buruntza Udalak-en enpresa hazitegia da. Martin Ugalde Kultur Parkea euskalgintzako eta kulturgintzako (nagusiki) enpresak barnebiltzen dituen parke enpresariala da eta badu ere enpresen hazitegi edo elkarlantoki bat. Iturolako eta Martin Ugaldeko elkarlantokien artean formazio agenda partekatu bat sortu dute, truke moduan, batzuen eta besteen jakintzak eta konpetentzien ingurko formazio agenda bat sortu eta gauzatzeko.

-Azalpen bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=tC7SIxuLNaI

-Webgunea:
http://iturola.eus

**5. Dekosocial:**
Bazterkeria sozialera kondenatuak diren pertsonekin, nagusiki pertsona migratuekin gizarteratze eta laneratze prozesuak sustatzen dituen ekimena. Sutargi enpresak Landuz programaren bidez aurrera daraman tailerrea, zeinetan egur birizklatuarekin altzariak egin eta saltzen dituzten.

-Webgunea:
https://www.dekosocial.com/ | https://www.sutargi.org

**6. Katea Legaia:**
Katealegaia irabazi asmorik gabeko elkartea da eta bere eginkizuna lan eta gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden pertsona desgaituentzat lanpostuak sortu eta mantentzea da, batez ere Gipuzkoan.

-Azalpen bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=lK0Ho3CEhlE

-Webgunea:
https://grupokl.com/eu/

# ESPERIENTZIAK / ADIBIDEAK:

**7. Zabalduz:**
Esku hartze sozialaren ereduaren aldaketa sustatzea, pertsonaren errespetua eta ongizatea eta bere bizitza kalitatea lortzeko. Jarduera ekologiko, jasangarri, garden eta hurbila eta komunitateari lotutakoa bilatzen dugu. Zabalduz Kooperatiba Elkartea nazionalitate eta kultura desberdinetako pertsonek osatzen dugu, eta konpromiso sozialak elkartzen ditu.

-Azalpen bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=AIhpAvXZZpg&feature=emb_logo

-Webgunea:
http://www.zabalduz.com/index-euskera.html

**8. Eraldaketa nodoa:**
Lurraldearekiko eta eraldaketa sozialarekiko konprometituak dauden enpresa talde bat da,eskualdeko eraldaketa sozial eta territoriala sustatzeko agenda publiko-kooperatibo adostu da 5 dimentsio dituena, eta dimentsio bakoitza elkarlanean egiten diren proiektuen bidez gauzatzen da: 1.-Inkulsibitatea; 2.- Iraunkortasuna; 3.- Tokiko Garapena; 4.- Kultura, euskara; 5.- Burujabetza teknologikoa.

-Kontaktua:
Andoni Egia (a-egia@hernani.eus)

**9. ESE saretzen:**
Beterri-Buruntza eskualdean Ekonomia Sozial Eraldatzaileko enpresek sortu duten sare bat. Beraien helburu nagusia da enpresa mota hauen artean interkooperazioa sustatzea, egiteko modu honen ikusgarritasuna eta ezagupena handitzea eta ekonomia eredu hau eskualdeko garapen ereduaren zentrora. Ekartzea.

-Kontaktua:
Ainhoa Iribar (ainhoa@tapuntu.eus)

**10. Enplegu Soziala:**
Beterri-Buruntza Udalak-ek bazterkeria sozialean dauden pertsona eta komunitateak laneratzeko eta gizarteratzeko sortu duen lan-sail berri bat, zeinak 6 udaletako gizarte zerbitzuak eta enplegu etknikaria barnebiltzen dituen ibilibide soziolaboral integralak diseinatu eta gauzatzeko.

-Kontaktua:
Andoni Zulaika (enplegu-soziala@hernani.eus)

# BIBLIOGRAFIKOA / ARTIKULUAK:


**1. Reas euskadi:**

https://www.economiasolidaria.org/eu/reas-euskadi/noticias/zergatik-ez-gara-oroitzen-ekonomiak-herritarrez-kezkatu-behar-duela

**2. Reas euskadi:**

https://www.economiasolidaria.org/eu/reas-euskadi/noticias/ekonomia-solidarioko-ikastaroa-reas-euskadik-sustatutako-prestakuntza

**3. Ikasle kooperatibak:**

https://www.diaridetarragona.com/tarragona/Tarragona-Solidaridad-en-forma-de-cooperativas-de-alumnos-20190620-0003.html

**4. Ikasle kooperatibak:**

https://goiena.eus/debagoiena/1386609084473-alecop-ikasleen-kooperatiba-bezalakorik-ez-dago-munduan

**5. Ikasle kooperatibak:**

https://www.ceac.es/blog/que-son-las-cooperativas-de-alumnos#:~:text=Qu%C3%A9%20es%20una%20cooperativa%20de%20alumnos&text=Consiste%20en%20formalizar%20una%20empresa,a%20nivel%20pr%C3%A1ctico%20c%C3%B3mo%20funciona.

Bigarren gakoa:
**EKONOMIA ERALDATZAILEA BALIOEN SUSTAPENA**

## Zertaz ari gara?

· **Berdintasuna:** Ekonomikoa, Enpresetan soldata txikiena eta handienaren arteko arrakalaren inguruko hausnarketa eta kontrola. Politkoa: pertsona guztiek erabakimen bera daukagu

· **Demokrazia:** Enpresako partaide guztiek erabakimen bera edukitzearen bermea. Pertsona bat bozka bat.

· **Konpromezu soziala:** Egungo errealitatea injustizia eta botere harreman ugariren kausa eta ondorio da, eta horrenbestez, enpresaren jardunak injustizia hauek ezabatu eta botere harreman hauek orekatzera egon behar du bideratuta.

· **Kooperazioa:** lehiakortasunean baino kooperazioan eta elkartasunean oinarriturik dagoen jendarte eta ekonomia eredu baten alde egitea da.

## Zergatik landu beharko genuke gako hau?

· Balioak dira erabaki eta ekintza estrategikoak gidatzen dituzten ardatzak, eta sortu nahi dugun ekosisteman erabaki eta ekintzak modu koherente eta adostuan hartu nahi badira, hauen atzean dauden balioen inguruko lanketa kolektiboa egitea ezinbestekoa da.

· Lurraldeko estrategia konpartitua erakitzeko oinarria direlako.

· Kontzientzia kolektiboa indartzeko, ardurak eta arriskuak partekatuz.

· Eragile ezberdinen arteko elkartasuna eta elkarlana sustatzeko (adibidez sektore berdineko eragileen artean indarrak batzeko bide gisa ulertuta).



## · Enpresa bakoitzak era indibidualean landu ditzakeen neurriak

| NEURRIA | AZALPENA | BALIABIDEAK |
|---|---|---|
| Gardentasuna | Erakundean informazioa gardentasunez kudeatzen dela bermatu eta horretarako prozesuak eta tresnak definitu. | · ERAKIDE |
| Botere harremanen diagnostikoa | Enpresa barruko botere harremanen eta erabaki guneen inguruko autodiagnostikoa burutu (erakunde mailakoa eta indibiduala). | · ERAKIDE |
| Funtzioen banaketa eta ardurak banatu | Funtzioen banaketa irudikatu eta arduradunak zehaztu. | · Tapunturen aholkularitza |
| Funtzioak esplizitatu | Erakunde barruan lanak eta funtzioak esplizitatu. | · ERAKIDE |
| Konpromisoen adostasuna | Arduren banaketaren inguruko hausnarketa kolektiboa egin, kontzientea eta guztiongatik onartua eta langileen konpromisoak neurtzeko bitartekoak adostu eta martxan jarri. | · ERAKIDE |
| Ardurak orekatu | Parte hartze mailak adostu eta horren araberako ardurak orekatu. | · ERAKIDE |
| Zuzendaritza taldea | Erakunde mailan zuzendaritza talde bat finkatu, zuzendari bakar baten figura ordezkatuz | · Argiaren aholkularitza |
| Lan baldintzak duindu | Lan baldintza duinak bermatu soldatari, ordutegiari, ardurei eta erabakimenari dagokionez | ·Sindikatuak |
| Horizontaltasuna bermatu | Horizontaltasunerako norabideak eta kudeaketa partekatua eta aldakorra izatea. | · Argia eta T.Mitxelenaren adibidea/aholkularitza |
| Balioak praktikan jarri | Kooperatiba eredu batek sustatzen dituen balioak erakundearen izanean barneratu eta praktikan jartzea. | · KoopFabrika<br>· ESE Saretzen<br>· Eraldaketa Nodoa |
| Balantze soziala | Balantze soziala aplikatu eta plan estrategikoaren kontutan hartzea | · ERAKIDE |
| Ordezkarien komitea | Sail bakoitzaren ordezkarien komite baten sorrera, bertan informazioa eta eskaeren ellkartrukatzea ematen delarik zuzendaritza taldearekin. | · Katea legaiaren adibidea |

## • Kolektiboki landuko diren ekintzak

| NEURRIA | AZALPENA | SUSTATZAILEAK | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|
| Eskualdeko sareak sortu | Sareak sortu, sustatu eta formalizatzea. | · Administrazio publikoak<br>· Enpresak | · Beterri Saretuz<br>· Eraldaketa Nodoa<br>· ESE Saretzen<br>· Beterri km0 |
| Ekosistemaren oinarriak adostu | Ekosistemaren zereginak, helburuak eta partaideak zeintzuk izango diren adostu. | · Ekintzaileak<br>· Administrazioa<br>· Hezkuntza eragileak<br>· Enpresak | |
| Langileak subjektu bihurtu | Enpresa/langile dikotomiarekin hautsi. Langile objektu vs. langile sujetu bilakatzeko hausnarketa kolektiboa egitea, eta beharrezkoa balaibide eta prozaesuak sortzea. | · Administrazio publikoak<br>· Hezkuntza eragileak | · KoopFabrika |
| Lurraldeari errotu | Komunitatearekiko konpromisoa; lurraldean konektatu, komunitatearen eraldaketa sozialaren agente aktibo bihurtu. | · Administrazio publikoak<br>· Enpresak<br>· Hezkuntza eragileak | · ERAKIDE<br>· KoopFabrika<br>· Beterri Saretuz<br>· Eraldaketa Nodoa |
| Lan produktibo eta erreproduktiboen arteko banaketa desagerrarazi | Sortzen ari garen ekosisteman zaintza gai zentral gisa kokatzea: formazioak, bidelaguntzak, zaintza lanen kolektibizaziorako prozesuen parte izan. | · Enpresak<br>· Administrazioa<br>· Hezkuntza eragileak | · Ese Saretzen<br>· Eraldaketa Nodoa<br>· Maitelan zaintza kooperatiba |
| Ekonomia eraldatu, jendartea eraldatzeko. | Ekonomia eraldaketa sozialeko eragile eta prozesuekin artikulatu, generoa, iraunkortasuna, parte hartzea eta burujabetza prozesuetan txertatu. | · Ekintzaileak<br>· Administrazioa<br>· Hezkuntza eragileak<br>· Enpresak | · Ese Saretzen<br>· Eraldaketa Nodoa<br>· KoopFabrika |
| Gizarteratzea eta laneratzea sustatu | Lurraldean bazterkeria egoera dauden kolektiboekin harremanatu eta hauen integraziorako enplegu aukerak sustatzea. | · Administrazio publikoak<br>· Hezkuntza eragileak | · Maitelan zaintza kooperatiba<br>· Beterri Errotuz laneratze enpresak |

Bigarren gakoa:

# EKONOMIA ERALDATZAILEA BALIOEN SUSTAPENA

## ESPERIENTZIAK / ADIBIDEAK:

**1. Urola Kosta Garapen Agentzia:**
Enpresetan aniztasuna kudeatzeko programa.

-Azalpen bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=gpSlzpj-X7Q&feature=emb_logo

-Webgunea:
http://www.urolakosta.eus/eu/web/urolakosta-agentzia/aniztasunaren-kudeaketa

**2. Olatukoop sarea:**
Euskal Herriko Ekonomia Sozial Eraldatzaileko enpresen sarea

-Azalpen bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=UVc9YXzYU0Y&feature=emb_logo

-Webgunea:
www.olatukoop.eus

**3. Reas Sarea:**
REAS Euskadi-k Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia solidarioa eta enpresa solidarioen sendotze eta aurrezagutzaren alde lan egiten du, arlo ekonomikoan alternatiba eraldatzaileak sortzen dituzten esperientzien eta baliabideen bultzada sustatuz. REAS Euskadi, 1997an jaiotako eta gaur egun 64 entitate biltzen dituen sarea da.

-Azalpen bideoa:
https://vimeo.com/392915920

-Kontaktua:
https://www.reasred.org/

**4. Birsortu espazioa:**
Urtarrilaren 24ean arratsaldeko 18:00etan Hik Hasi eta Emaús Gizarte Fundazioak BIRSORTU Debagoiena espazioa irekiko dute Arrasateko EkoCenter-ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzarekin. Prozesu honen bitartez kontsumo arduratsua eta ekonomia zirkularra bultzatu nahi dira bai ikastetxeetan bai EAEko enpresetan. Horretarako, BIRSORTU espazioak hondakin objektu ezberdinez hornituko ditu eskualdeko ikastetxeak, berrerabileratik abiatuz hausnartzeko, galdetzeko, ikertzeko eta beraien ikuspegia zabaltzeko hondakinen bilketaren, kontsumoaren murrizketaren eta ekonomia zirkularraren esan nahiaren inguruan.

- Lotura:
https://www.economiasolidaria.org/eu/reas-euskadi/noticias/birsortu-debagoiena-espazio-berria

**5. Batura tresna:**
Batura Euskal Herriko Ekonomia Sozial Erandatzailearen mapa da. Soziala, bizitza erdigunean jartzen duten eta lurraldearen arazoei irtenbideak eskaintzen dizkioten ekimenen mapa delako. Eraldatzailea, merkatu eta kapitalaren menpe dagoen mundu honen aurrean alternatiba sendo bat delako.

-Webgunea:
http://batura.eus/

**6. Merkatu Soziala:**
Euskadin kontsumo arduratsua sustatzeko aplikazioa.

-Lotura:
https://www.economiasolidaria.org/eu/reas-euskadi/noticias/abian-da-dagoeneko-merkatu-soziala-euskadin-kontsumo-arduratsua-sustatzeko

**7. Lan espazio komunitarioak:**

**-Iturola** Eraldaketa Soziala helburu duten esperientzia sozioekonomikoen bilgunea da, Inteligentzia Kolektiborako Laborategia. Pertsonen arteko elkar-lana ardatz, eta komunitatearen ongizatea helburu, proiektu sozioekonomikoak garatu, egonkortu eta hedatzeko baliabideak eskaintzen ditugu, Beterri-Buruntza eskualdeko ekintzaile eta eragileen artean sareak ehunduz, eta ideia, zerbitzu eta ezagutzen elkar-trukea sustatuz.

-Azalpen bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=tC7SIxuLNaI

-Webgunea:
http://iturola.eus/

**-BDS Koop** Ekonomia eraldatzailea eta lekuko garapena sustatzen duen elkartea da **BDS KOOP-ERALDAKETA FABRIKA**, ingurumena errespetatuko duen ekintzailetza arduratsua bultzatuko duena; pertsona erdigunean jarriz, eskualdeko bizitza hobetzeko.

-Webgunea:
www.bdskoop.eus

**8. 15 Neurriak:**
Udalerrietan Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea sustatzeko 15 neurrien garapena (XES)

-Lotura:
https://olatukoop.eus/app/uploads/2019/11/15_neurri.pdf

**9. Talleres Mitxelena:**
Mitxelenan, tamaina handiko piezetan espezializatuta gaude, eta zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen diogu bezeroari, goi-mailako kualifikazioa duten langileen eskutik eta epeak zorrotz betez. Mitxelena kooperatiba gisa eratu zen. Bere ibilbidean zehar, langileek aktiboki parte hartu dute kooperatibak izan dituen erronkei aurre egiteko orduan. Hain zuzen, gure nortasun-ikurretako bat da langileek enpresarekin, inguruarekin eta bezeroekin duten inplikazioa.

-Beterri Saretuz 1. Jardunaldiko hitzaldia:
https://youtu.be/0KT4-F5dCgE

-Webgunea:
https://www.talleresmitxelena.eus/eu/

**10. TaPuntu:**
Marketin digitala, web garapena, formakuntza eta aholkularitza eskaintzen duen kooperatiba. Kooperatzen ekintzailetza zerbitzuan sortua eta beterri-Buruntza eskualdean ekonomia sozial eraldatzailearen sustatzaile nagusienetako bat.

-Beterri Saretuz 1. Jardunaldiko hitzaldia:
https://youtu.be/IkAOcHiRJd0

-Webgunea:
https://www.tapuntu.eus

**11. Argia:**
Ehun urte dituen euskal eta euskarazko komunikabidea, astekaria. Antza inpirmategia eta Iaemtza zerbitzu enpresekin batera Ametzagaña talde enpresariala osatzen dute, eta eskualdeko ekonomia sozial eta eraldatzaileko sustapen sareetan hartzne dute parte. Eraldaketa Nodoan eta ESE Saretzen-en.

-Beterri Saretuz 1. Jardunaldiko hitzaldia:
https://youtu.be/UKoXHXZmYgs

-Webgunea:
https://www.argia.eus

**12. Katea Legaia:**
Katealegaia irabazi asmorik gabeko elkartea da eta bere eginkizuna lan eta gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden pertsona desgaituentzat lanpostuak sortu eta mantentzea da, batez ere Gipuzkoan.

-Beterri Saretuz 1. Jardunaldiko hitzaldia:
https://youtu.be/kPWsoMWW-Qs

-Azalpen bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=lK0Ho3CEhlE

-Webgunea:
https://grupokl.com/eu/

**13. Maitelan:**
Maitelan zaintza lanei kolektiboki erantzuteko tresna bat da. Horretarako, langile bazkideak (zaintzaileak), bazkide erabiltzaileak (zainduak) eta bazkide kolaboratzaileak bilduko dituen gizarte-ekimeneko kooperatiba integrala sortu dute.

-Webgunea:
https://maitelan.eus

**14. Beterri KM0:**
Maitelan zaintza lanei kolektiboki erantzuteko tresna bat da. Horretarako, langile bazkideak (zaintzaileak), bazkide erabiltzaileak (zainduak) eta bazkide kolaboratzaileak bilduko dituen gizarte-ekimeneko kooperatiba integrala sortu dute.

-Webgunea:
https://www.beterrikm0.eus

**15. Beterri Errotuz:**
Beterri Errotuz S.L.U Beterri-Buruntza Udalak (Astigarraga, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Usurbil eta Urnieta) eta Erroak Sartu Gizarteratze Elkartearen elkarlanetik sortutako irabazi asmorik gabeko laneratze enpresa da.

-Webgunea:
https://beterrierrotuz.eus

Hirugarren gakoa:
# AHALDUNTZEA

## Zertaz ari gara?

· Erakundeko kide guztiek beraien ideiak plazaratu eta erabakiguneetan iritzia eman ahal izateko gaitze kolektiborako prozesuak eta baliabideak sortzeaz ari gara. Bestetik, kide guztien behar, motibazio eta espektatiben lanketa indibiduala zein kolektiboa egin ondoren, hauetara moldatzeko enpresetan egin beharko diren aldaketa prozesuak sustatuko dira, pertsona bakoitzaren indarguneak ahalbideratu eta hobetu beharreko aspektuei lekua emango dien kultura organizatibo berriak sustatzeko baliabdieak eta prozesuak gauzatuz.

## Zergatik landu beharko genuke gako hau?

· Pertsonak dira edozein antolakunderen muina, eta antolakundeak pertsonaen gaitasunen baturaren emaitza dira. Gero eta pertsona gaituagoak eta ahaldunduagoak orduan eta antolakunde gaituagoak lortuko ditugu eta gero eta antolakunde ahaldundu eta gaituagoak orduan eta lurralde gaituago eta ahaldunduagoa.

· Bazkide izateak ardura maila handiagoa dakarrelako, eta enpresaren arduradun bihurtzeak ahalduntze eta gaitze espezifikoa exijitzen duelako.

· Erakundean daukagun talentua sustatu eta kudeatzeko ezinbestekoa delako.



## • Enpresa bakoitzak era indibidualean landu ditzakeen neurriak

| NEURRIA | AZALPENA | BALIABIDEAK |
|---|---|---|
| Hausnarketarako gune kolektiboa sortu | Enpresa moduan eta langile moduan funtzionatzeko moduaz hausnartzeko etengabeko gune bat sortu: bakoitzaren ardurak, rolak aztertu, aldaketa aukerak pentsatu… | · Talleres Mitxelenaren adibidea |
| Talde lana sustatu | Talde lana sustatu eta unitate txikietan lan egiteko aukerak eskaini. | · KoopFabrika |
| Langileen profilaren inguruko hausnarketa egin | Pertsona bakoitzak duen rol eta profilaren diagnostikoa garatu: lantalde guztiaren argazki kolektiboa lortuz eta arduren banaketa eta erronkak horretara egokituz. | · Eskualdeko aholkularitzak |
| Jarraipena eta babesa bermatu | Arduren banaketa hori oinarrian hartuz jarraipen bilerak finkatu eta aurrera eraman, langileari behar duen horretan laguntza eskainiz. | · Eskualdeko aholkularitzak |
| Erronkak identifikatu | Urtero erronka kolektiboak eta indibidualak identifikatzeko saioa egin eta hauek lortzeko plangintzak egin. | · Eskualdeko aholkularitzak |
| Ezagutzen trukaketa egin | Taldeko pertsonen artean ezagutzen trukea emateko bideak eta espazioak sortu. | · Eskualdeko aholkularitzak |
| Bidelaguntzak egin | Funtzioen eta arduren trasbasea egiteko bidelaguntzak eta bestelako mekanismoak finkatu. | · Eskualdeko aholkularitzak<br>· ERAKIDE pasa duten enpresak |
| Praktikaldiak | Praktikaldietarako hezkuntza eragileekin harremanak egin, ikasle izatetik profesional izateko bideak erraztuz. | · Beterri Saretuz |
| Motibazioa neurtu | Langileen inplikazio eta motibazio maila maiztasun batekin neurtu eta behar den uneetan neurriak hartu. | |
| Konfiantza elikatu | Konfiantza eta talde atxikipena indartzeko ekintzak egin eta hauei lekua eman erakunde mailan. | |
| Aukeren berdintasuna | Iritzia emateko eta eta hauek eztabaidatzeko espazioak sortu. | |

## · Kolektiboki landuko diren ekintzak

| NEURRIA | AZALPENA | SUSTATZAILEAK | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|
| Espazio kolektiboak | Ahalduntzea landuko duten saio espezifikoak egin. | · Administrazio publikoak<br>· Hezkuntza eragileak | · Beterri Saretuz<br>· KoopFabrika |
| Erabaki guneetan parte hartzea | Etorkizuneko langileak izango diren ikasleei erabaki guneetan parte hartzeko aukera eskaintzea: bai hezkuntza zentroetan zein enpresetan praktikak garatzean. | · Hezkuntza eragileak<br>· Enpresak | |
| Praktika eredugarriak zabaldu | Praktika eredugarriak ezagutu eta hauek martxan jartzeko gomendioak ezagutzeko eskualdeko enpresen arteko foro iraunkorrak martxan jartzea. | · Enpresak | |

## ESPERIENTZIAK / ADIBIDEAK:

**1. Eskualdeko aholkularitzak:**
Ekonomia sozial eta eraldatzailea ardatz hartuta, proiektu kolektiboak martxan jartzeko egitasmoa. Formazio eta bidelaguntza zerbitzua.

-Emun:
https://www.emun.eus/

-Elhuyar:
https://www.elhuyar.eus/

-Harago:
http://harago.eus/

**2. Beterri Saretuz:**
ESE Saretzen enpresa sareak GFA-ren diru laguuntzaren bidez Beterri-Buruntza eskualdean partaidetzazko enpresak sustartzeko ekosistema bat sortzea helburu duen prozesua.

-Azalpen bideoa:
https://youtu.be/pgtgOUEpl_g

-Kontaktua:
beterrisaretuz@gmail.com

**3. Talleres Mitxelena:**
Mitxelenan, tamaina handiko piezetan espezializatuta gaude, eta zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen diogu bezeroari, goi-mailako kualifikazioa duten langileen eskutik eta epeak zorrotz betez. Mitxelena kooperatiba gisa eratu zen. Bere ibilbidean zehar, langileek aktiboki parte hartu dute kooperatibak izan dituen erronkei aurre egiteko orduan. Hain zuzen, gure nortasun-ikurretako bat da langileek enpresarekin, inguruarekin eta bezeroekin duten inplikazioa.

-Beterri Saretuz 1. Jardunaldiko hitzaldia:
https://youtu.be/0KT4-F5dCgE

-Webgunea:
https://www.talleresmitxelena.eus/eu/

**4. KoopFabrika:**
Ekonomia sozial eta eraldatzailea ardatz hartuta, proiektu kolektiboak martxan jartzeko egitasmoa. Formazio eta bidelaguntza zerbitzua.

-Azalpen bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=zZjF_UMDLDY&feature=emb_logo

-Webgunea:
http://koopfabrika.eus/

Laugarren gakoa:
**EKONOMIKO - FISKAL - FINANTZIEROA**

# Zertaz ari gara?

· Partaidetza ahalbideratzen duen baldintza nagusienetako bat langileek enpresaren jabetza edukitzea da (nahiz eta badaude parte hartzea ahalbideratu dezaketen beste forma juridiko batzuk). Beraz, enpresen jabetzan langileen partaidetza sustatu ahal izateko langileentzako eskuragarri egongo diren baliabide ekonomiko-fiskal-finantzarioak sortu behar dira, aukera/beharra dagoenean langileek enpresaren jabetzara irisgarritasuna eduki ahal izan dezaten.
Egun badira nahikoa baliabide ekonomiko dituzten finantza etikoetako entitateak. Hauenganako gerturapen estrategia kolektibo publiko-kooperatibo bat gauzatzeko aukera eskaintzen digu Beterri Saretuz prozesuarekin sortzen dihardugun ekosistemak.
Bestalde, jabetzarik gabe, langileek parte hartze maila altu bat izateko aukera ahalbideratu eta bermatu beharko litzateke

# Zergatik landu beharko genuke gako hau?

· Langileek kapitalaren jabetza edukitzeak gainontzeko eremuetan partaidetza sustatzeko baldintza nagusienetako bat delako, nahiz eta ez den baldintza bakarra.

· Horrez gain, egungo koiuntura ekonomikoan gainera asko dira kanpoko kapitalek bereganatzen dituzten enpresak, hauen etorkizuna kanpoko faktore eta interesen menpe uzten ditu eta enpresen itxiera edota deslokalizazio prozesuak eragiten dituzte. Hori dela eta, garrantzitsua da langileen jabetza errazteko baliabideak eta bitartekoak martxan jartzea.

· Azkenik, krisi garaiotan ere ugariak izango dira krisiak jota ixteko arriskuan egongo diren enpresak. Esperientziak erakusten digun bezala, enpresa hauek kooperatiba bihurtu eta langileen esku jartzea enpresen eta lanpostuen mantenurako aukera oso bideragarria da, baino askotan hau



## · Enpresa bakoitzak era indibidualean landu ditzakeen neurriak

| NEURRIA | AZALPENA | BALIABIDEAK |
|---|---|---|
| Aukerak eskaini | Kapitalaren jabetzan enpresako kide guztiek parte hartzeko aukerak eskaini. | |
| Soldaten gardentasuna | Erakundeko soldatak ez dute zertan berdinak izan behar baina bai gardenak: kide guztiek hauen inguruko informazioa eskura izanik eta kopuruak eta desberdintasunak kide guztien arteko adostasun bidez ezarriz. | · KoopFabrika |
| Soldatak eta ardurak orekatu | Soldata eta arduren arteko banaketa orekatua adostu. | · Argiaren adibidea |
| Enpresaren arlo ekonomikoaren inguruko langileen ulermena bermatu | Erakundearen gai ekonomikoen gardentasuna bermatu eta hauek ulertzeko baliabideak eskaini. | |
| Eskualdaketak denboraz prestatu | Enpresak eskualdaketa bat emateko beharra dagoela identifikatuz gero, denborarekin partaidetza kultura eta konpromisoa landu, langileekin batera prozesu bat martxan jartzea… | · KoopFabrika |
| Bazkidetza prozesuak | Bazkidetza prozesuetan langile izatetik bazkide izateko beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak bereganatu eta lantzeko baliabideak eskaintzea | · KoopFabrika |

## · Kolektiboki landuko diren ekintzak

| NEURRIA | AZALPENA | SUSTATZAILEAK | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|
| Neurrien zabalpena indartu | Instituzio publikoek eskaintzen dituzten diru laguntza zein onura fiskalen inguruko informazioa enpresei helaraztea: informazioa, sentsibilizazioa, tresnak, aholkularitza… | · Administrazio publikoak | · Beterri Saretuz |
| Formazio saioak | Enpresetako langileek alderdi ekonomikoa ulertu eta kapitalean parte hartzeko ezagutza nahikoak barneratzeko eskualde mailako formazio saioak egin. | · Administrazio publikoak<br>· Hezkuntza eragileak | · KoopFabrika<br>· Iturola-Martin Ugalde formazio eskaintza<br>· Beterri Saretuz |
| Enpresen behar komunak asetzeko antolatu | Lurraldeko enpresen arteko etengabeko komunikazioa bermatu behar ekonomiko-finantzario amankomunak identifikatzeko eta hauei kolektiboki erantzun ahal izateko. | · Enpresak<br>· Administrazio publikoak<br>· Hezkuntza eragileak | · Beterri Saretuz |
| Finantza funts territorialak | Kapitala erosteko interesik edukiko ez duen finantza funts territorialak sortzea. | · Enpresak<br>· Administrazioa<br>· Finantz etikoko eragileak | |
| Ikerketak | Beste herrialdeetan parte hartzea sustatzeko hartutako neurri ekonomiko, fiskal eta finantzarioen inguruko ikerketa lanak martxan jartzea. | · Hezkuntza eragileak<br>· Administrazio publikoak | · KoopFabrika |
| Formazioak garatu | Jabetza eredu ezberdinen inguruko formakuntza: alde onak/txarrak argi adieraziz. | · Hezkuntza eragileak<br>· Administrazio publikoak<br>· ASLE<br>· Elkar-lan | · KoopFabrika<br>· Beterri Saretuz |

## Laugarren gakoa:

# EKONOMIKO - FISKAL - FINANTZIEROA

## ESPERIENTZIAK / ADIBIDEAK:

**1. KoopFabrika:**
Ekonomia sozial eta eraldatzailea ardatz hartuta, proiektu kolektiboak martxan jartzeko egitasmoa. Formazio eta bidelaguntza zerbitzua.

**-Azalpen bideoa:**
https://www.youtube.com/watch?v=zZjF_UMDLDY&feature=emb_logo

**-Webgunea:**
http://koopfabrika.eus/

**2. Argia:**
Ehun urte dituen euskal eta euskarazko komunikabidea, astekaria. Antza inpirmategia eta Iaemtza zerbitzu enpresekin batera Ametzagaña talde enpresariala osatzen dute, eta eskualdeko ekonomia sozial eta eraldatzaileko sustapen sareetan hartzne dute parte. Eraldaketa Nodoan eta ESE Saretzen-en.

**- Beterri Saretuz 1. Jardunaldiko hitzaldia:**
https://youtu.be/UKoXHXZmYgs

**-Webgunea:**
https://www.argia.eus

**3. Beterri Saretuz:**
ESE Saretzen enpresa sareak GFA-ren diru laguuntzaren bidez Beterri-Buruntza eskualdean partaidetzazko enpresak sustartzeko ekosistema bat sortzea helburu duen prozesua.

**-Azalpen bideoa:**
https://youtu.be/pgtgOUEpl_g

**-Kontaktua:**
**beterrisaretuz@gmail.com**

**4. Iturola-Martin Ugalde:**
Iturola elkarlan sorgunea Beterri-Buruntza Udalak-en enpresa hazitegia da. Martin Ugalde Kultur Parkea euskalgintzako eta kulturgintzako (nagusiki) enpresak barnebiltzen dituen parke enpresariala da eta badu ere enpresen hazitegi edo elkarlantoki bat. Iturolako eta Martin Ugaldeko elkarlantokien artean formazio agenda partekatu bat sortu dute, truke moduan, batzuen eta besteen jakintzak eta konpetentzien ingurko formazio agenda bat sortu eta gauzatzeko.

**-Azalpen bideoa:**
https://www.youtube.com/watch?v=tC7SIxuLNaI

**-Webgunea:**
http://iturola.eus

**1. Azaro fundazioa.** Azaro Fundazioa bere ingurune hurbilean, lehentasunez Lea Artibai eskualdean enpresa berriak sortu eta enpresa sarearen lehiakortasuna hobetzea helburu duen erakundea da.

**-Lotura:**
http://www.azarofundazioa.com/es/inicio/8-erakundea/34-lea-artibaiko-kooperatiba-mahaia-elkartea

**2. Coop57.** Zerbitzu finantzario etikoak eta solidarioak eskaintzen dituen kooperatiba da. Bere helburu nagusia ekonomia eta gizartea eraldatzea da. Bitartekaritza finantzarioaren bidez ekonomia sozial eta eraldatzailea oinarri duten proiektuak finantzatzea da bere funtzioa. Gizarte zibilaren aurrezkia biltzen du eta ekonomia sozial eta eraldatzailean diharduten entitateetara bideratzen du. Hori bai, entitate horiek okupazioa, kooperatibismoa, asoziazionismoa eta, orokorrean, solidaritatea eta iraunkortasuna bermatzen duten proiektuak sustatu behar dituzte, elkartasun printzipioak eta printzipio etikoak oinarri.

**-Webgunea:**
https://www.coop57.coop/eu/taxonomy/term/18396

**3. Fiare.**

**-Webgunea:**
https://www.fiarebancaetica.coop/eu

Bostgarren gakoa:
# PERTSONA ERDIGUNEAN JARTZEA

## Zertaz ari gara?

Soldataz haratago enpresa eredu batzuen lan-ereduek eskaintzen dituzten onurak dira, hala nola, erabakimena, parekidetasuna, emozioen kudeaketa, zaintza beharrak, ikasketa jarraia, norbanakoaren beharrak kontutan hartzea, etab...

## Zergatik landu beharko genuke gako hau?

· Pertsonek enpresetan parte hartu nahi izateko, beraien oinarrizko behar eta emozioen inguruko hausnarketa eta lanketa egitea ezinbestekoa delako.

· Langileak kolektiboaren parte sentitu daitezen, lanean gustora aritu daitezen eta motibazioa handitzeko.

· Lantaldearen aniztasuna balioan jarri eta aukera berrietara irekiak egoteko.



## · Enpresa bakoitzak era indibidualean landu ditzakeen neurriak

| NEURRIA | AZALPENA | BALIABIDEAK |
|---|---|---|
| Atxikipena | Enpresako kide bakoitza enpresarentzat garrantzitsua dela argitzea parte sentiaraziz. | |
| Alderdi emozionalaren garrantzia | Alderdi emozionalen kudeaketak, enpresako beste alderdiek duten garrantzi berdina lortzeko hausnarketa kolektibo bat martxan jartzea. | · Arremanitz-en adibidea |
| Zaintza ardura | Langileen arteko giroari denbora eskaini, horretarako zaintza arduradun bat finkatuz. | · Arremanitz-en adibidea |
| Kontziliazio beharrak ezagutu | Kontziliazio neurriak martxan jarri baino lehen, langileen benetako beharrak ezagutzea. | |
| Proiektuetan alderdi emozionala neurtu | Proiektuen jarraipen eta ebaluazio prozesuak garatzeko garaian, bertan lan egin duten langileen emozioak kontutan hartzea. | |
| Gatazken kudeaketa | Gatazken kudeaketa eraginkorra: lanketa prebentiboa edota gatazkak sortzean zer nolako pausuak eta eskura izan ditzakegun baliabideak zeintzuk diren argi izateko. | · KoopFabrika |

## · Kolektiboki landuko diren ekintzak

| NEURRIA | AZALPENA | SUSTATZAILEAK | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|
| Zaintza oinarritik | Hezkuntza eragileek, ikasle zein ekintzaileei zuzenduriko formazio programetan, zaintza, emozioen kudeaketa… kontenplatu, enpresako ardatz gisa hartzeak duen garrantzia eta onurak azpimarratuz. | · Hezkuntza eragileak | · Beterri Saretuz<br>· KoopFabrika |
| Gaitasunak landu | Arlo akademikoetan ikasleei ezagutza teoriko eta praktikoak azaltzeaz gain, etorkizunean enpresetan parte hartzeko gaitasunak lantzeko bitartekoak eskaini. | · Hezkuntza eragileak | · KoopFabrika |
| Praktikaldietan gaitasunei garrantzia eman | Praktikaldiak esleitu baino lehen, enpresarekin etengabeko komunikazioa izatea, ikasleak enpresan beharko dituen gaitasunak zeintzuk diren argitu eta horren arabera ikasle bat edo bestea aukeratu. | · Hezkuntza eragileak<br>· Enpresak | |
| Fazilitazioak eskura | Administrazio publikoetatik fazilitadoreak enpresen eskura izateko baliabideak jarri proiektuetan arlo hau txertatu dadin. | · Administrazio publikoak | |
| Politikak sustatu | Pertsona erdigunean jarriko duten benetako politikak sustatzea. | · Administrazio publikoak | |
| Unitate didaktikoa enpresentzat | Enpresetan arlo hau kudeatzeko irakasgai bat sortzea eskualdeko hezkuntza eragileek martxan jartzea. | · Hezkuntza eragileak | |
| Praktika eredugarriak | Beste herrialde batzuetan arlo hau lantzeko ereduen inguruko ikerketak eta praktika onak eskualdera zabaltzera. | · Hezkuntza eragileak | |

## ESPERIENTZIAK / ADIBIDEAK:

**1. Arremanitz:**
Xedea sexuen aniztasuna, parekidetasuna eta tratu onak sustatzea da, plazera eta zaintzak jendartearen erdigunean jarriz. Eragileen eragile gara. Hezkidetza eta sexuen aniztasuna sustatuko dituzten talde zein pertsonak prestatzen eta laguntzen dugu, bidea elkarrekin egiteko. Plazera ere plazara atera nahi dugu, funtsa, sexualitatea herriratzea da. Sexualitatearekiko ikuspegia zabaltzea dugu helburu. Azken finean, nork bere burua onartzen eta maitatzen laguntzea da muina, horrela izango baititugu pertsona zein harreman osasuntsu eta gustagarriak.

**-Webgunea:**
https://www.arremanitz.eus

**2. KoopFabrika:**
Ekonomia sozial eta eraldatzailea ardatz hartuta, proiektu kolektiboak martxan jartzeko egitasmoa. Formazio eta bidelaguntza zerbitzua.

**-Azalpen bideoa:**
https://www.youtube.com/watch?v=zZjF_UMDLDY&feature=emb_logo

**-Webgunea:**
http://koopfabrika.eus/

**3. Beterri Saretuz:**
ESE Saretzen enpresa sareak GFA-ren diru laguuntzaren bidez Beterri-Buruntza eskualdean partaidetzazko enpresak sustartzeko ekosistema bat sortzea helburu duen prozesua.

**-Azalpen bideoa:**
https://youtu.be/pgtgOUEpl_g

**-Kontaktua:**
beterrisaretuz@gmail.com

Seigarren gakoa: **OSPATZEA / AITORTZA**

## Zertaz ari gara?

· Proiektu batean parte hartzeak norberaren bizitzaren autoeraketarako zentzua duela jakin eta jakinaraztea, eta era berean, norbanakoek eratzen duela erakundea aitortzea berau osatzen duten partaide guztiei eta guztiengandik.

## Zergatik landu beharko genuke gako hau?

· Egiten den lana aitortua izan dadin.

· Enpatia sorrarazten duelako lankideekin eta komunitatearekin.

· Parte hartzeko gogoak, indarrak eta motibazioak sortu eta berriro elikatzeko aukera sortzen duelako.

· Egindako esfortzu baten ondoren, merezitako errekonozimendua jasotzeko.



• **Enpresa bakoitzak era indibidualean landu ditzakeen neurriak**

| NEURRIA | AZALPENA | BALIABIDEAK |
|---|---|---|
| Ospakizunak balioan jarri | Ospakizunak inbertsio gisa ulertu, kideen arteko harremanak eta giro ona sustatzeko bide gisa. | |
| Gune informalak eragin | Gune informalak sortu eta elikatu, bertan aitortzarako bitartekoak eta ohiturak landuz. | |
| Prestaketa kolektiboa | Ospakizunen prestaketak kolektiboki pentsatu eta ondoren kudeaketa talde bat izendatu. | |
| Sistematizazioa | Ospakizunak estandarizatu, ohikoak diren egoera positiboak nola ospatuko diren erabakiz (adb: langile baten jubilazioa, praktiketako egonaldia egon ondorengo itxiera nola eman). | |
| Aitortza espazioak sortu | Pertsonen ahalduntzearekin lotura duten aurrerapausoen inguruko informazio eskaini eta balioan jartzeko espazioak eta baliabideak garatu. | |
| Ekarpenak neurtu eta eskertu | Lantalde baten barruan pertsona bakoitzak egindako ekarpena neurtu eta lortutako arrakastak aitortu eta eskertu. | |
| Kanpo sarea kontutan hartu | Errekonozimendua inplikatu guztiei, zuzenean edo zeharka bere lanari esker erakundearen emaitzetan eta funtzionamenduan ekarpena egiten badu (adb: langileen familia edo bestelakoak kontutan hartu ospakizunetan ere). | |
| Balioak mahai gainean jarri | Erakundearen balioen inguruko hausnarketa eta berreskurapena. | |
| Balioekin errotu | Erakundearen baloreak eta motibazioak enpresaren motore bihurtu. | |
| Ondo egindakoak balioan jarri | Ondo egindakoei gaizki egindakoei jartzen zaien arreta bera eman eta hauek ospatu. | |

· **Kolektiboki landuko diren ekintzak**

| NEURRIA | AZALPENA | SUSTATZAILEAK | BALIABIDEAK |
| --- | --- | --- | --- |
| Aitortza kolektiboa | Beste erakunde batzuekin elkarlanean aurrera eramandako prozesuen inguruko informazioa eskaini eta lortu diren emaitzak aitortu eta ospatu. | | |
| Saretu eta ospatu | Eskualdeko beste eragileen aitortza eta ospakizunak ekintzetan parte hartu (lurraldekotasuna eta kolektiboaren ideia indartuz) | | |

Seigarren gakoa:

# OSPATZEA / AITORTZA

## ESPERIENTZIAK / ADIBIDEAK:

**Ezagutzen al dugu esperientzia edo eredurik gako hau landu duena eta eredu interesgarria dela iruditzen zaiguna? Zeintzuk?**

**1. Argia Egunak.**
Argiaren komunitateta batu eta ospakizun kolektibo bat egiten den eguna da.

-Lotura:
https://www.argia.eus/argia-eguna

**2. Talleres Mitxelenaren** urteurrena.
Enpresan lan egin eta berau kooperatibizatu zuten generazioari eginiko omenaldia izan zen, belaunaldi horrretako azken kidea jubilatzerkoan egindakoa. Langileetaz haratago hauen emazte eta familiak omendu ziren, lan errpoduktiboek duten ikusgarritasun eta garrantzi txikia salatu eta lan hauen garrantzia aldarrikatzeko. Ospakizun kolektibo bat izan zen.

-Lotura:
https://www.talleresmitxelena.eus/es/2019/10/21/etorkizunera-bidean-atzera-begirako-aitortza-mitxelena-kooperatiban/

**3. OlatuKoop** festa.
Olatukoop-en sorreraren urteurren bakoitzean egiten duten festa irekia.

-Lotura:
https://olatukoop.eus/ekitaldia/olatubostfesta/

## OINARRI/ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:


- *Ez gara neutralak* (Gorka Bereziartua; Argia), autoeraketari buruz.
- *Tesis sobre el concepto de huelga* (Lan kolektiboa; Artefakte).
- *La ofensiva sensible* (Diego Sztulwark; Caja Negra).
- *Contra el trabajo, "Contra los apologistas del trabajo"* (Nietzche, Tumbona ediciones).